

O R O I T Z A

(ONDARROAN GALDU DAN CHALUPAKO MARIÑELDIA -RI)

Irten ziñaten ichaso ortara
 zeren echeak utzirik
 irabaztera baldin albazan
 familiyentzat ogirik;
 seguru nago zuen barrenetan
 etzegon tristura aundirik
 osasunez beteak irten
 ziñatenian echetik.

Baña sortzen da ekaitz gogorra
 ichasoaren barrindik,
 бага аundiak oparo datoz
 bata bestian atzetik;
 chimist, turmoyak, aize indartsua
 orru aserria urrutitik...
 zuek laguntza eskatu arren
 etzan agertzen inondik

Alako batez бага аundi bat
 dator chit aserraturik,
 barrenen sartu eta chalupa
 jarri du urez beterik;

andikan laster dator bestia
 ta ura ere sarturik
 zuen chalupa an gelditu da
 betiko ondoratuturik.

Trantze arretan arki ziñaten
 guztiak chit bildurturik..
 ibillirikan igesi..., ¡bañan!...
 ¡gizarajuak!... ¡alferrik!...
 goian... zerua .. ta bian... ura
 inondik ez da laguntzik...
 ¿alda munduan eriotza bat
 au baño tristeagorik?...

Zuen guraso, aur t'alargunak
 emen daude penaturik
 eriotz gogor, triste orretaz
 inola ezin azturik...
 ¡Ama Birjiña egongo altzan
 maitero errukiturik
 zuek sartzeko zeru ederrean
 bere mantu-pean arturik!

ENRIKE ELIZECHEA

Errenteriyán, 1902-ko Abenduaren 30-ean

